

noaua



**Anerreka Ingurumen
Elkartea: “Ezkeltzuko parke
eolikoak txikizioa dakar”**

**Troia eta Txikierdi arteko
lanak beste bi astez
luzatuko dira**

**Igandean Sutegin,
‘Nur eta herensugearen
tenplua’ filma**



**Covid-ak eragindako
etenaren ondoren, inauteri gosez
ziren usurbildarrak**

Usurbilen,
zure auto-tailerra



Eusebio

Ramon



Atallu

AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak

DOHAINIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.com
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

ARATZ
zabaleta anaiak
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Albisteak iruditan

Gizonezko baten gorpua aurkitu dute Andatzan, indarkeria zantzuekin

Pasa den igandean gizonezko baten gorpua aurkitu zuten Andatzan, indarkeria zantzuekin. Zer gertatu den argitzeko ikerketa abiatua du dagoeneko Ertzaintzak. Hilketak kasu bat izan liteke.

Andatza inguruan paseatzen ari zen mendizale baten txakurrak eman zuen gorpuarekin eta honi segika topatu zuen txakurraren jabeak hildakoa. Herritar honek eman zion abisua Ertzaintzari. Hainbat iturriren arabera, hilotzak eskuak lotuak zituen eta baita indarkeria zantzuak ere.



Hilketa kasu bat izan litekeela uste du Ertzaintzak. Argazkia, artxibokoa.

Laburrean

317,06ko intzidentzia

Urte hasieran 5.000tik gorakoa izan ondoren, 317,06raino murriztua zen aste hasieran koronabirusaren intzidentzia Usurbilen. Osasun Sailak plazaraturiko azken datuen arabera, eguneko kasu berri bat baino ez dira zenbatzen ari azken astean udalerrri honetan.

1956ko kintoen bazkaria

1956an jaiotakoak apirilaren 2an larunbata batuko dira Atxega jauregian. "Animatu eta gogoz dagoenak martxoaren 20a baino lehenago izena eman beharko du ondorengo telefonoetan: 607 942 458 (Xabier) edo 695 713 969 (Josefina)".

Odol ematea

Bi hilean behin izaten den odol ematea bueltan datorkigu; datorren astelehenean, hilak 7, 16:30-20:30 artean Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela hona: 943 007 884.

noaia

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatoria:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Ainhoa Azpirotz

Hotzikara sortzen dit ikusten dudan bakoitzean. Hasieran lehen inpresioagatik izango zela pentsatu nuen, baina ez, behin eta berriz ikusi, eta hotzikara berbera sortzen dit.

“Irabazi arte!” euskarazko telesail berriaren irudi-argazki-kartelagatik ari naiz. Azkenaldian askotan ikusi dut egunkarietan, autobusetako markesinetan... Bost neska futbolari ageri dira, lau jokalaria eta atezaina, besoak altxata, ukabila estututa, ahoa zabalik, hortzak erakutsiz, oihuka, jarrera gogorrarekin. “Irabazi arte!” jartzen du goialdean, beraz, irabazi izana ospatzen egon daitezke. Edo irabazi arte gogor lehiatzeko prest daudela erakusten. Gogortasuna erakusten dute.

Ez dakit telesailak zer norabide hartuko duen aurrerantzean, baina irudia ez zait gustatzen. Aurpegiko espresioei banan-banan begiratu eta hiru behintzat beldurrezko pelikula batean erraz kokatuko nituzke: aurrean jartzen denari beldurra edo sustoa emateko keinua daukate, “aaaaaaa!!!!!!” orro ozen batekin.

Hori al da emakumeek indarra erakusteko edo irabazi izana ospatzeko modua? Gizonek bezalakoa? Hori da gustatzen ez zaidana. Helburuekin bat egiten dut ino-

Erne gizonkeyekin!



“Aurpegi gogortasunak hotzikara sortzen dit. Hori al da emakumeek indarra erakusteko edo irabazi izana ospatzeko modua? Gizonek bezain maskulinoak izan behar al dugu?”.

AINHOA AZPIROTZ

“Feminitatea zabaldu beharko litzateke gizonen artean, eta ez alderantziz, maskulinitatea emakumeen artean”

lako zalantzarik gabe: gizon zein emakume, neska zein mutil, eskubide berberak ditugu edozein kiroletan aritzeko, goiko mailetara iristeko eta jarduteko, edozein lanpostutan soldata parekatuak izateko, kulturgintzan baldintza berberetan bizimodua ateratzeko eta zaintza arloan eskubideak eta betebeharrak parekatzeko.

Ados, guztiz ados. Berdintasuna eta parekidetasuna nahi dugu eskubide eta betebeharrarekin. Helburua argi dago. Baina modua? Helburu hori lortzeko modua? Moduak ere berdina izan behar al du? Hain maskulino eta gogorra? Hortzak erakutsi eta eskumuturrak estutu beharra al dago horretara-

rako?

Enpresetako, instituzio politikoetako edo bestelako erakundeetako goi karguetara eta zuzendaritza postuetara iritsi diren emakumeak ezagutzen ditugu. Eta sarritan esan izan da gizonak bezain zorrotzak, agintariak eta goitik-beherakoak direla. Emakume horiek eredu maskulinoa imitatu eta errepikatu izan dute.

Eta ez. Emakumeok beste estilo bat dugu, horizontalagoa, kolektiboagoa, baketsuagoa. Feminitate hori zabaldu beharko litzateke gizonen artean, eta ez alderantziz, maskulinitatea zabaldu emakumeen artean.

Futbol profesionaletik hasi eta beheko mailetara arte erabat zabaldua dago gola sartu ondoren ukabilak estutuz eta builaka “vamoosssss!!!!” esate hori. Eta niri, “vamos” horren atzean “izorrai” dagoela iruditzen zait, hori transmititzen didate gorputzeko eta aurpegiko espresioekin adie-

razten dutenarekin. Ezin ote da ospatu taldekideekin elkartzuz, salto eginez, besarkatuz baina irribarre pozgari eta ase batekin aurkariari izorra dadila opa gabe?

Nik uste dut baietz, eta hori dela emakumeok egin behar dugun ekarpena. Gure ereduarekin iritsi goiko mailetara eta parekidetasunera. Eredu androzentrikoa eta gizonkeriak utzi eta emakumeon ezaugarrieekin aritu. Ez sistema patriarkatuak eman izan digun irudi “ño-ñoarekin”, baizik eta guretik, gure naturaltasunetik ateratzen zaizkigun egiteko moduekin eta umorearekin.

Suitzako talde batek 2005eko Bakearen Nobel Sarirako mundu osoko 1.000 emakumez osatutako hautagaitza aurkeztu zuen, ez zuen hautagai bakarra aurkeztu, hori eredu maskulino zela uste zutelako. Ekintza harekin munduaren alderdi femeninoa atera nahi izan zuten. Haien iritziz, munduko arazo asko munduaren alderdi maskulino muturrera eramateak sortzen ditu eta horrek elkar suntsitzea dakar. Horregatik, mundua alderdi femeninoarekin orekatu beharra dagoela aldarrikatu zuten.

Martxoaren 8a gerturatzen ari den honetan, hausnarketarako puntu bat izan daiteke, neskak*!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Artzi
 bazkariak EGUNERO
 afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
 ☎ 943 362725
 ☎ 688 690 361

txirriStra
 TABERNA
 -Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Udal hobarien onuradun izaera onartu zaie 45 herritarri

Iazko irailean, hobariak (abantailak) eskuratzeko aukerak zabaltzea erabaki zuen udalak. Urtarrilaren 1az geroztik indarrean da neurria eta urteko lehen hilabetean 45 herritarri onartu zaie onuradun izaera.

2022ko urtarrilaren 1az geroztik, hobari bat lortzeko aukera zerbitzu gehiagotara luzatu da.

Zer dira udal hobariak?

Tasa eta prezio publiko bidezko oinarritzko zerbitzuak jasotzeagatik ordaindu beharreko kuotetan aplikatzen diren onura ekonomikoak.

Udal hobarien onuradun izateko, zer nolako baldintzak bete behar dira?

Bizikidetzaren unitateek, kide kopuruaren eta diru-sarreraren arabera, %50eko, %75eko edo %90eko hobariak eskura di-



Udaletxean edota telematikoki eska daitezke hobarien inguruko informazioa.

ESKAERAK

**60 eskaeretatik
45 onartu ditu udalak.
"Eta gehienek %90eko
hobaria jasoko dute"**

tzakete. Hau da, zerbitzu horientzat ordaindu beharko dutena %50, %25 eta %10 izango da, hurrenez hurren.

Urtarrilean aurkeztu diren 60 eskaeretatik, 45 onartu ditu udalak. "Eta gehienek (31 eskaera) %90eko hobaria jasoko dute", udaletxetik jakinarazi dutenez. "Gainerako 15ek ez zituzten baldintzak betetzen".

Hobariak zer nolako zerbitzuei aplikatzen zaizkie?

Hobarien onuradun izaera aitortu zaien 45 herritarrek

aldea igarriko dute ondoko zerbitzuetan: ur horniduran, hondakinen bilketa eta tratamenduan (etxebizitzetarako dagokien tarifa finkoari lotuta), estolderian, hiletetan (ehorzketak eta hobitiek ateratzea, panteoikoak izan ezik), udal-baratzeen erabileran, Oiarde kiroldegiko abonamenduetan eta ikastaroetan, Haur Eskolan eta Udajolasen. Hobarien onuradun izaera aitortzen zaienez gero, zerbitzu horietan guztietan aplikatuko zaizkie hobariak 45 herritarroei.

Non eta nola eska daitezke hobariak?

Hobarien inguruko informazio guztia biltzen duen esku-orria banatu zuen udalak etxetik. Dena den, udaletxean bertan, aurrez aurre eska daitezke informazioa.

Edo telematikoki usurbil.eus/eu/zerbitzu-telematikoa web orrialdean (zergak, tasak eta isunak atalean).

Urbil, Gipuzkoako Elikagai Bankuarekin bat

Ursurbilgo merkataritza guneak eta Gipuzkoako Elikagai Bankuak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute aste honetan. Hitzarmen honen bitartez, Urbilek bere bezeroak informatu eta kontzientziatuko ditu urtean zehar egin ohi diren hainbat elikagai bilketen inguruan.

Espainiako Elikagai Bankuen Elkarteak bideratzen dituen bilketa kanpaina asko Eroski Urbil hipermerkatuarekin elkarlanean antolatzen dira. Horrez gain, Gipuzkoako biztanleriaren zati batek dituen beharrez sentsibilizatu nahi dira bere bezeroak.

Maria Belen Méndez Vigo Gipuzkoako Elikagaien Bankuko presidentea eta Leyre Lobato



Argazkian, Gipuzkoako Elikagaien Bankuko presidentea eta Urbilgo gerentea.

HITZARMENA

"Urbilek bere bezeroak informatu eta kontzientziatu nahi ditu"

Elosegi Urbileko gerentea eta sinatutako akordio berri honek

"merkataritza-guneak bere inguruan egin nahi dituen asmo handiko ekintzen antolaketaz erekin duen konpromisoa indartzen du, NBEko Garapen Iraunkorreko Helburuak babesten dituen Jatorria proiektuaren barruan".

Santixabelak antolatze bilerak

Santixabel jaiei begira jarri da udaleko kultura saila. Dena den, lehenik festen inguruko hausnarketa egin nahi du. Lehen bilera aste honetarako deitu du: martxoak 2 asteazkena, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean.

Dirulaguntzak telematikoki eskatzeko laguntza saioa martxoaren 8an egingo da

Dirulaguntza eskaerak digitalki tramitatzen laguntzeko saioak badu lehen hitzordua: martxoaren 8an izango da, Potxoenean, arratsaldeko 18:00etan.

Dekretu bidezko kontratazio batek EAJ-PNVren arreta piztu du

Otsailaren 24ko plenoa hasi eta berehala, Josune Urkola EAJ-PNVko bozeramaileak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) idazketari lotutako kontratazio batean ipini zuen arreta. HAPO-aren idazketa amaitzeko, udalak lan hitzarmena luzatu dio zeregin horretan ari den arkitektoari. Pertsonalgoko udal teknikariaren txostena ordea, kontrakoa zen. Zergatik eman zuen kontrako txostena udal teknikariak? HAPO-a idazteko programaren epea amaitu delako. Kontrako iritzia izanik, kontratazio hori nolatan egin den galdetu zuen Josune Urkolak plenoan.

Agurtzane Solaberrieta alkatearen esanetan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) idazketan ari den arkitektoari lan kontratua luzatu zaio, besteak beste, HAPO-aren beraren erredakzioa amaitzeko. Horretaz gain, hasierako onarpena ematen zaionean eta alegazio epea irekitzen denean (ekaina hasieran izan litekeela aipatu zen osteguneko plenoan), arkitekto honek atenditu beharrekoak atenditu ditzan.

Arestian esan bezala, pertso-



Otsaileko ohiko plenoa aurreko ostegunean egin zen.

EAJ-PNV
“Hiru legealdi egin ditugu gai honekin (Hiri Antolamendurako Plan Orokorrarekin), eta ez dugu egoki ikusten”

nalgoaz arduratzen den udal teknikariak kontratazio honen aurkako txostena idatzi zuen, HAPO-a burutzeko programa amaitu dela argudiatuz. Alkateak hala ere, lan hitzarmena egiteko erabakia hartu du dekretu bidez. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketari oso gutxi falta zaiola dio, eta bere esanetan ez du zentzurik beste arkitekto bat kontrata-

tzeak, besteak beste, HAPO-aren idazketa prozesua are gehiago atzeratuko lukeelako.

Prozeduraren egokitasuna

Josune Urkolak prozedura hau zuzena ote zen galdetu zion udal idazkariari, eta idazkariak erantzun zion udal teknikarien txostenak ez direla lotesleak. Kontrako txostena izanik ere, alkateak kontratazioa egiteko eskumena duela argudiatuz.

Honi lotuta, EAJk kritika luzatu zion EH Bilduri, “hiru legealdi egin ditugu gai honekin (HAPO-arekin), eta ez dugu egoki ikusten”, adierazi zion Urkolak Solaberrietari.

Hain zuzen, aurreko le-

gealditik dator arkitektoaren inguruko afera. Aurreko legealdian, HAPO-a idazteko programa abiatu zuen udalak eta arkitekto bat kontratatu zuen. Une jakin batean, HAPO-aren idazketa albo batera utzi behar izan zuen arkitekto honek, udal-arkitektoaren postua betetzeko. “Joan-etorri ugari izan zituen udal-arkitektoak garai hartan, eta une horretan udalak behar handiagoa zuen postu hori betetzeko”, udaletxetik jakinarazi diguten. Bitarte horretan, HAPO-aren idazketa geldirik egon arren, “programak aurrera jarraitu zuen, eta gaur da eguna programari bukaera eguna iritsi zaiona, eta ezin da luzatu”. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ezohiko modu batean egin delako atzeratu da erredakzio lana, “baliabide propioekin eta parte-hartze prozesuak burutuz, lurjabeekin adostasunak lortuz eta abar”.

Beste herri batzuetan, HAPO-aren erredakzioa kanpoko arkitektura talde batekin egin da baina alkateak ez du aukera hori begi onez ikusten. Urruneko baina, gertuko ikuspegia lehenestearen aldekoa dela adierazi zuen.

Martxoaren 8ko adierazpena aho batez onartu zen

Emakumeen Egunaren atarian, Martxoaren 8ari lotutako adierazpena onartu du aho batez udalbatzak, otsailaren 24an egin zuten osoko bilkuran. Egun horretan deituko diren mobilizazioetan parte hartzea animatzen ditu herritarrak. Testuak hainbat erronka marrazten ditu etorkizunera begira eta horietan urratsak ematen jarraitzeko konpromisoa hartzen du Usurbilgo Udalak,

baita EAE-ko gainerako udalek ere, Euskadiko Udalen Elkarrekin sustaturiko adierazpena baita iragan astean onartu zutena.

Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak indartzea eta “generoaren eta giza eskubideen ikuspegia” sendotzea; administrazioko langileen artean “Berdintasunari buruzko barne-pres-

takuntza” sustatzea; “indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzea”; ikuspegi intersektionalaren integrazioan aurrera egitea; herritarren sentsibilizazioan sakontzea; emakumeak ahalduzko neurriak osotasunean garatzen jarraitzea; edota erakundeen akordio, koordinazio-sistema eta protokoloak hobetu eta eguneratzen jarraitzea.

Euskara Aholku Batzordea

Iragan astean Euskara Aholku Batzordea bildu zen Potxoenean; hitanoa sustatzeko iaz bideraturiko ekimenen eta gainerako ekintzen balantzea egitearekin batera, urte honi begira jarri ziren. Euskararen aldeko bi hitzordu garrantzitsu ospatuko ditugu; apirilaren 8an goizaldeko 6:00ak pasatxoan gure artetik igaroko den Korrika eta urte amaierako 3. Euskaraldia.

Patxi Suárez, PSE-EE: “Estatuko funtsak Santuenea eta Etxealdia biziberritzeko balia daitezke”

Usurbilgo Udalak 214.500 euro baino gehiago jasoko ditu Covid-19 funtsetatik. Patxi Suárez PSE-EEko bozeramaileak Etxealdian eta Santuenean inbertituko luke diru hori, “irisgarritasun eta mugikortasun arazoei aurre egiteko”. 2022. urteko udal aurrekontuetan antzeko proposamena luzatu zuen emendakin baten bitartez.

Usurbilek 208.334,98 euro jasoko ditu Covid-19 funtsetatik eta beste 6.228,18 euro Estatuko zergen ekarpenetatik. “Pedro Sánchez buru duen gobernuak hitzeman zuen bezala, udalerriei zuzenduko zaizkie zergen bidezko ekarpen horiek, herritarren bizitza hobetzen laguntzeko”.



Diru hori “irisgarritasun eta mugikortasun arazoei aurre egiteko” baliatzea proposatu du zinegotzi sozialistak.

Auzoek ahalik eta oztoporik txikienak izan ditzaten

“Mugikortasuna eta irisgarritasuna errespetatzen duten auzoen aldeko apustua egin behar dugu, gure adinekoek, mugikortasun urriko pertsonen

edo haur-kotxeak dituztenek ahalik eta oztoporik txikienak izan ditzaten”, azaldu du ohar bidez PSE-EEko bozeramaileak. Santuenean eta Etxealdian azterketak abiarazi daitezkeela uste du: “are gehiago,

lanen bat hasi daiteke eremu horiek merezi duten bezala berurbanizatzeko”.

“Aukera hau aprobetatu egin behar da”

Patxi Suárez zinegotziaren ustez, aukera hau aprobetatu egin behar da udalerrien susperraldi ekonomikoari ziurtasun handiagoz ekiteko eta herri mailako hobekuntzak bideratzeko. “Ezinbestekoa da udal behar adina diru-sarrerak izatea agindu zaizkigun egin-kizunak bete ahal izateko”. Eta herri mailako instituzioak dira hain zuzen “herritarren behar hobekien ezagutzen dituztenak”. Horregatik, Usurbilgo ordezkari sozialistak eskerrak eman nahi dizkio Espainiako Gobernuari hain beharrezkoak diren baliabideak luzatzeagatik.

Gidarien amesgaiztoa beste bi astez luzatuko da gutxienez

Otsailaren 18an hasi zituzten Troia eta Txikiardi arteko konponketa lanak. Hamabost eguneko kontua izango zela jakinarazi zuen Aldundiak. N634 errepideko lanak luzatu egingo dira ordea, oraingo obra amaitutakoan Troiako sarrera-irteera inguruan hasiko biatira lanean. Beste bi asteko lana izango dela aurreikusitako dute. Beraz, bertatik igarotzen diren gidarien buruhaustea luzatu egingo da.

Aldundiak Udalari jakinarazi gabe ekin zion Troia-Txikiardi arteko obrari. Errail baten bapateko itxierak beraz, ezustean harrapatu zituen usurbildarrak. Hamabost eguneko kontua izango zela jakin zuen gero Udalak.



Troia eta Txikiardi arteko babes-horma berritutakoan, bestelako lanak hasiko dituzte Troiako sarrera-irteera inguruan.

Troiako sarrera ere konponduko dute

Troia eta Txikiardi arteko babes-horma berritutakoan ordea, bestelako lanak hasiko dituzte Troiako sarrera-irteera

inguruan. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurreikuspenen arabera, martxoaren 18an amaituko dituzte konponketa lan guztiak. Denborak esango du.

Ehunka herritarrek bete dute ‘Aktibatzen’ prozesuko galdetgia

Udalak zehaztu duenez, 401 herritarrek bete dute aipatu galdetgia, eta hauei DBH zikloko beste 220 ikasle inguruk erantzundako aparteko beste hainbeste galdetegi batu behar dira.

Bilera irekiak martxoaren 10ean eta 31n

Parte hartze prozesua abiatu baino ez da egin. Herria “aktibatzen” jarraitu nahi dute martxoan. Eta horretarako bi bilera ireki deitu dituzte; bat martxoaren 10erako bestea martxoaren 31rako, arratsaldean, 18:00-20:00 artean Potoxoenan. Egitasmo honen testuinguruan osatutako talde eragileak bestalde, bilera bana egingo du martxoan eta apirilean.

Animaliak, familia berri baten zain

Duela 25 urte, zaha-
rrak berri herrian. **Gi-
puzkoako Animaliak eta
Landareak Babesteko Elkar-
teak** ateak ireki zituen etxerik gabeko
txakur eta katuak familiei emateko.
Egun ere, lan bera egiten jarraitzen dute.
Zuhaitz-pen ireki zuten txakurtegiari buruzko
erreportajea idatzi zuen Idoia
Torregaraik, herri hitzarmenetik
hasi eta zerbitzu guztien xehe-
tasunak emanda.

Borroka sozialekin jarraituz,
martxoaren 8a gain gainean zela

eta, emakume langilearen egu-
neko aldarrikapenak egin zituz-
ten, horien artean **Ana Aizpuruak**
idatzitako iritzian. Herrian
egindako galdeketa txikian ere,
gizon zein emakumeak ados
zeuden ospatu beharreko eguna
zela esanda. Erreportaje txiki
bat ere eskaini zuten NOAUA!ko
lagunek, Usurbilgo egoera azal-
du eta arazo nagusiak azalera-
tzeko.

Kirol arloan, futbola nagusi.
Euskal derbiaren bezperan **Ca-
nal+** telebista kateak txapelketa
bat antolatu zuen 9-10 urteko

umeentzat eta Usurbilgo bost
umek irabazi zuten. Horien ar-
tean aski ezaguna dugun **Imanol
Agirretxe**.

Aurtengoan bezala, duela
25 urte ere, **Korrika** herritik pa-
satzekoa zen euskara eta **AEK
euskalategiei** bultzada emateko.
Gertaera horri buruzko informa-
zioa eskaini zuten, zein ordutan
pasatuko zen eta zein taldek
parte hartuko zuten. Euskarari
bultzada emateko beste egitas-
mo bat ere martxan jarri zuten,
Zuberoako Eperra ikastolari la-
guntza emateko diru-bilketa.



1997ko martxoaren 7ko azala.

Duela 25 urte

NOAUA! 15. zenbakia 1997ko martxoaren 7an

“Zer beldur izaten nuen nik goizeko ordu haietan...”

Manuela Aizpurua
Arana autopista
egin zutenean bota
zuten Usurbilgo Benta base-
rrian jaio zen 1915ean. Sei
seme-alabetatik gazteena,
Donostian eta Lasarten bizi
izan zen gaztetan, ezkontzean,
Aginagako Mapil baserrira
joan zen. Euskal Herriko eta
Espainiako hainbat leku eza-
gutzeko zortea izan du.

**NOAUA! Usurbilgo lurretan
jaioa, baina kaskotik oso
urruti. Askotan joaten zinen
Usurbila?**

Manuela Aizpurua Arana: As-
kotan ez. Gu gehienetan Do-
nostiara joaten ginen. Ikas-
ketak Igaran, Ibaetan egin
nituen. Anai zaharrena Usur-
bilen ibili zen eskolan, baina
ni eta nire anaietako bat Iga-
rara joaten ginen. Usurbilgo
Udalak 600. urteurrenean
atera zuen liburu beltzean
ateratzen da gure klasea, 91.
orrialdean.

**Zenbat urterekin utzi zenion
ikasteari?**

Hamabi urterekin ikasketak
utzi eta Donostiara esnea
saltzera joaten hasi nintzen.
Goizeko 8etan irteten nintzen,

astoa esnez kargatu eta oinez
esnea banatzera Alde Zaharre-
ko San Lorenzo Kalera. Lehen ez
zen izaten auto eta autobusik.

**Eskolan baino gehiago ikasten
zen kalean?**

Nik uste dut baietz. Eskolan
zerbait ikasi genuen, asko ez,
baina defenditzeko adina. Etxe-
tik kanpo asko ibilia naiz eta
han ikasitakoak zerbeitetarako
balio izan dit.

Neskame ere egon omen zinen.

17-18 urterekin joan eta lau-
pabost urte. Hilabete lanean pasa
eta sei duro irabazten nituen.
Urte batzuen buruan nazkatzen
hasia nintzen. Honela Txarako
Iñaxi eta biok etxeandreei
erosketak egitera goazela esan
eta ostegun batean Michelinera
joan ginen lan eskean. Oste-
gunean izena eman eta aste-
lehenean lanera. A zer-nolako
larritasuna etxeko andreari ba-
nindoala esatean.

**Zer egoeratan egiten zenuen
lan?**

Goizeko 5etatik eguerdiko
ordubatera egiten nuen lan.
Bentatik oinez joaten nintzen
bakar-bakarrak. Zer beldur iza-
ten nuen nik goizeko ordu haie-

tan...

**Emakumeek etxean lan egin
behar dute. Zer esango zenuke
zuk honi buruz?**

Etxetik kanpo lanean jo eta ke
ibilia gara batzuk, pezetari
ondo begiratu. Ez genuen as-
korik gastatzen orduan. Asko
saiatu behar zen pezeta bat
aurreratzeko. Garai hartan ez
zen egun bezala irabazten eta
gastatzen. Orain bezala ira-
baziak edukita zer egingo ote
genuke... Agian gaizki ikasi.

**Baina zu angulak saltzen ibilia
zara.**

Bai. Ezkondu nintzenean Mi-
chelin utzi eta neguan Madrilen
pasatzen nuen angulak saltzen.
Hasieran eskean bezala hasi
nintzen, “parrokirik” gabe joan
banintzen. Gero egin nuen “pa-
rrokia”. Egunean 100 kilo behar
izaten nituen.

**Urteetan hainbeste lan egin
eta gero, zer moduz bizi zara
orain?**

Ondo esan beharko. Belaunek
huts egiten didate, baina tira.
Astean bi egunetan Araetara
gustura joaten naiz. Ostegu-
netan txangurroak garbitzen
lagundu, eta igandean lasai



Manuela Aizpurua.

bazkaldu. Hala ere, nahiago
izaten dut etxeko lasaitasuna.

**Atzo Erriberan ikusi zintudan
paseatzen.**

Ia egunero ikusiko nauzu,
eguraldi ona egiten badu be-
hintzat. Hala ere, paseatzeko
tokirik ez daukagu, toki txarra
benetan. Bidearen ondoan
ezin da ibili, kamioiek bota-
tzen duten haizearekin, eta
hango zalapartarekin... Ezin
dut hura jasan. Erriberan
ibiltzen gara Maria Luisa eta
biok, nahiz eta lohia sartzean
etxean gelditu behar izaten
dugun.

Eta etxean zer?

Telebista ikustea ez zait gus-
tatzen. Goizetan Arrate Irratia
entzuten dut eta azkenaldi
honetan, gantxiloa egiten
ikasten ari naiz.

Urbilek lankidetzaren hitzarmena sinatu du Gipuzkoa Minbiziaren Aurka elkartearekin

Urtebeteko lankidetzaren hitzarmena sinatu du Urbilek merkataritza guneko instalazioetan Gipuzkoa Minbiziaren Aurka elkartearekin batera. Horren harira, kanpaina batzuk egingo dituzte urtean zehar, eta lehena jada martxan da "Tour del Cáncer" erakusketa martxoaren 7ra arte egongo da ikusgai Urbilgo modaren gunean.

Hitzarmen honek elkartei laguntzeko hainbat ekintza biltzen ditu, minbiziaren inguruko prebentzioan, informazioan eta kontzientziazioan eragiteko eta baita gaixotasun hau pairatzen duten pertsonen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzeko ere.



Martxoaren 7ra arte erakusketa bat egongo da zabalik Urbilgo modaren gunean.

LANKIDETZA-HITZARMENA
"Hitzarmen honek elkartei laguntzeko hainbat ekintza barnebiltzen ditu"

Modu honetan, Urbilek inguruko erakunde ezberdine-

kin hartutako konpromisoari jarraipena eman nahi dio, urtez urte ingurunearekiko, gizarte gipuzkoarrarekiko eta kultura eta ohitura euskaldunekiko duen ardurak bere DNAn duten garrantzia azpimarratuz.

Tximeleta gimnasia taldeak udaleku irekiak antolatu ditu

Aste Santurako egitarau oparoa luzatu du Tximeleta K.K.E.-k. Usurbilen egingo da egitarauaren zati bat: Gimnastika kanpua, alegia.

Apirilaren 11tik 13ra eta 19tik 22ra gimnasia erritmikoaz gozatzeko aukera izango dute haurrek. 9:30etik 12:30era izango dira saioak. Gutxienez 10 pertsonako taldea osatu beharko da.

Informazio gehiagorako info@tximeleta.eus helbidera idatzi.



Apirilaren 11tik 13ra eta 19tik 22ra, Gimnastika kanpua egingo da Usurbilen.

Ate Irekiak

Martxoak

9

HARTU HITZORDUA!!!

Erdi Maila: 17:00
Goi Maila: 18:00

943 364600
adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Uztaritzeko dantzak Usurbilera ekarri zituen Orbeldik

Inauteri Jaia girotzen has-teko, Orbeldi Dantza Taldeak Uztaritzeko dantzak eskaini zituen ostiral arratsaldean. Zumarte Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleen laguntzaz, kalejira dotorea egin eta gero frontoian azken dantzarekin itxi zuten emanaldia.

Kiroldegitik abiatu ziren 19:30ak inguruan eta Artzabalgo plazatik igaro ondoren, Sagardo Plaza bertuan egin zuten bigarren dantzaldia. Frontoian egin zuten azken emanaldia 20:30ak aldera.



Kiroldegitik abiatu zen ostiraleko kalejira eta frontoian eskaini zuten azken emanaldia.



HH eta LHko ikasleek Inauteri festa egin zuten ostiralean Udarregi Ikastolan. Urteroko kiroldegiko erakustaldirik ez, baina ikastolako patioan dantza egiteko aukera izan zuten. LH6koen dantza horrenbeste gustatu zitzaizen gainontzekoei, bi aldiz egitea beste erremediorik ez zuten izan.

Larunbateko Inauteri Jaia gogoz hartu zuten

Inauteriak giro ezinhobean ospatu dira aurten. Larunbat goizean, Orbeldi Dantza Taldeak antolatutako ikuskizunarekin giro bikaina sortu zen frontoian. Nahi izan zuten guztiek oholtzara igotzeko aukera izan zuten, eta ondoren, Usurbilgo joaldunak kalera atera ziren egunari alaitasuna emateko.

Arratsaldean, Burrunbazale txaranga ibili zen herriko kaleetan zehar. Jende ugari jarraitu zuen kalejira, giro ederrean. Frontoian amaitu zuten ibilbidea.



Mozorro eta kolore festa erabatekoa izan zen larunbatean, Inauteri Festan.



Argazkietan ikus daitekeen moduan, irudimena nagusi izan zen. Larunbat arratsaldean Burrunbazale txaranga ibili zen kalejiran.

Parke eoliko bat eraiki nahi dute Andatza hegoaldean

Parke eoliko bat eraiki nahi dute Andatza ondoan; hala ondorioztatu daiteke, otsailaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak zekarren iragarkia irakurtzen badugu. Ohartarazpena, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren izenean dator, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkariera da. Eta hala dio; “Ezkeltzu parke eolikorako aurretiaz aurkeztutako administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da”.

Usurbil eta Zizurkilgo lurretan dagoen eremuaz ari da. Andatza hegoaldean kokatua dagoen 508 metroko garaiera duen mendigunea dugu Ezkeltzu. Zizurkil, Aduna, Usurbil nahiz Aia ingurutik igo liteke bertara.

Lau aerosorgailu eraikitzeko baimena eskatu dute

Aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera aldiz, “Green Capital Development XLIV SLU” izeneko enpresak biderratu du. Egoitza Madrilen du. Argindarra sortzen dihardu lanean, “energia berriztagarriak”



Andatza hegoaldean kokatzen da Ezkeltzu, 508 metroko garaiera duen mendigunea. Urdinez, parke eolikoaren balizko kokagunea.

ESKAERA

“Green Capital Development XLIV SLU enpresak 4 aerosorgailu eraikitzeko administrazio-baimena eskatu du”

baliatuta; mareak, eguzkia, edota kasu honetan bezala, haizea baliatuta.

Gipuzkoako Aldizkari Ofi-

zialeko iragarkiak ohartarazten duenez, 4 aerosorgailu eraikitzeko eskatu du aipatu aurretiazko administrazio-baimena. “Instalatutako potentzia gordina” 18 MW-koa da.

Baimen eskaera 20 egunez egongo da jendaurrean

Baimen eskaera hau jendaurrean izango da 20 eguneko epean. “Hori guztia argitaratu ematen da, hogei eguneko epean, iragarki hau 115/2002

Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan azken aldiz argitaratu zen egunetik zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehian eskabideak aurkeztu ahal izan ditzaten, dekretu horren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan izapidetze elektronikoko plataformaren bidez”.

“Udalak ez zuen proiektu honen berri”

Ezustea eta harridura agertu du Usurbilgo Udalak, Ezkeltzun parke eolikoa eraiki nahi dutela jakin ostean. “Ez zuen horren berri gaur (otsailak 24) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu duten arte”, ohartarazi zuten. Albistea jaso bezain laster, “aztertzen hasi da zer proiektu den eta prozedura aldetik zein fasetan dagoen”.

“Batik bat Zizurkilgo eremuan eragingo luke”

Gogorarazi duenez, “ira-



“Parkeak batik bat Zizurkilgo eremuari eragingo lioke”, Udalaren esanetan.

garkia Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen

Sailaren izenean dator eta Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezka-

riak argitaratu du”.

Eraiki nahi duten parke eolikoak Usurbil nahiz Zizurkilgo lurrei eragingo lieke, baina Udalak argitu duenez, “argitaratutako koordinatu geografikoaren arabera, batik bat Zizurkilgo eremuan eragingo luke”.

Une honetan, “lau aerosorgailu lituzkeen parke eoliko bat ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek eskabideak lehian aurkezteko 20 eguneko epea ireki dute”.



Anerreka Ingurumen Elkarte

Ezkeltzuko parke eolikoak txikizioa dakar

Urtarrilean zehar aurteratu genuen zurrumurrua egia bilakatu da: Andatza mendian, Zizurkil eta Usurbil arteko mugaren inguruan, 4 aerosorgailu jasoko lituzkeen Parke Eolikoak iragarri dute ofizialki. Behin berriro, administrazio publikoak, herritarren interesak babestu eta ingurumena zaintzeko egin beharreko plangintzak eginda eduki beharrean, interes ekonomikoa aurrejartzen du, energia eolikoan diharduten enpresen esku utziaz, non eta nola egin azpiegitura erraldoi hauek. Eusko Jaurlaritzak amore eman du enpresen aurrean, haiei gure lurak oparitzuz erokeriak egiteko.

Lau haize errota erraldoi hauetatik, hiru Zizurkilgo udal barrutian kokatuko lirateke eta bat Usurbilen. Lurretik 200 metroko altuera hartuko luketen eta 160 metroko diametroko errotorea duten haize errotak aurreikusten dira.

Energia berriztagarrien azpiegiturek ere, ingurumen eraginak dauzkate, eta parke eolikoek bereziki jasangaitzak dira ikuspegi horretatik. Landa eta natura-eremuetan ezarri nahi dituzten industria-instalazio hauek berekin dakarte ekosistemak desgaturatzea bideak eta beste azpiegiturak zabaltzean. Hauek eraikitzeke behar di-



“Azpiegitura hauen ingurumen-inpaktua handia da, parke eolikoetan hiltzen diren hegazti kopuru handiak adierazten duen moduan”. Argazkia, artxibokoa.

“Azpiegitura hauen inguruko plangintzarik ez dagoenez, enpresa pribatuak erabakitzen dute instalazio horiek non eta zein tamainatakoak izango diren”

ren azpiegitura erraldioen ondorioz, baso natural garrantzitsuak suntsituko dira, errekek kaltetuko dira, eta abar. Aurreikusi den Ezkeltzuko kokapenera iristeko, gutxienez 8 metroko zabalerako bidea ireki beharko litzateke, garraiorako ibilgailu bereziak behar baitira. Haize errota hain garaiak izanik, sostengua egingo duten hormigoizapata izugarriak egin behar izaten dira, sakonera handikoak eta 20 metro baino gehiagoko diametroarekin, lur mugimendi handiak eraginez. Sortzen den elektrizitatea garraiatzeko, goi-tentsioko linea eraiki beharko litzateke baita, parketik azpiestazioraino. Horrek suposatzen du beste lur eremu handi bateko baso suntsiketa eta lur mugimenduak dorreak eraikitzeke, eta etor-

kizunean eremu guzti horretan basorik ez sortzea. Gero, behin aerosorgailuak funtzionamenduan hasten direnean, inguruko hegazti-fauna eragingo lituzkeen kalteak etengabeak eta betirako izango dira. Azpiegitura hauek biodibertsitatearen galeran eragiten duten ingurumen-inpaktua handia da, parke eolikoetan hiltzen diren hegazti kopuru handiak adierazten duen moduan.

Gure erkidegoan, energia berriztagarrien proiektu berri eta handien aurrean gaude. Inpaktu ugari eragingo dituzten proiektuak, egiten dugun energia-kontsumo neurrigabearen aurreko erantzun gisa aurkezten direnak. Eta azpiegitura hauen inguruko plangintzarik ez dagoenez, enpresa pribatuak erabakitzen dute instalazio horiek non eta zein tamainatakoak izango diren. Administrazio publikoa, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak, enpresa pribatu hauek planifikatutakoa errebisatzera mugatzen delarik.

Kapitalismo Berdea sistema ekonomiko zaharkitu bati eusteko alferrikako saiakeran ari da, eta, horretarako, ez dio erreparatzen ingurumen-kalteari. Honen aurrean, egiazko plangintza batek aukera eman behar luke energia berriztagarriak zenbat, non eta nola garatu behar diren eztabaidatzeko eta baloratzeko.

Inork ez du zalantzan jartzen etorkizunean energia fosilak desagertu behar direla eta haien lekua energia berriztagarriek hartu behar dutela. Kontua da nola eta zertarako. Hortaz, ustez klima aldaketari aurre egiteko eraiki nahi diren proiektu hauek natura-ingurumenean eragin oso larriak dituztela ikusten dugu. Biodibertsitatea eta klima aldaketaren aurkako ekosistemak kaltetzen ditu. Beste eredu energetiko batera jotzeko beharra ikusten dugu. Energia-kontsumoa pixkanaka jaitziko duena, lurraldean zehar instalazio txikietan banatutako ekoizpen berriztagarria barne hartzen duena. Egungo energia eredu zentralizatutik apurka eredu deszentralizatura iragan behar da. Ekoizpena, kontsumo puntutik ahalik eta hurbilen egingo den eradura jo behar dugu. Besteak beste, elektrizitate garraioan energia askoz gutxiago galtzeko eta natur espazioak babesteko.

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

600 024 825

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

GAR

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38

628 45 78 39 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com

KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Malen Lanz Garcia de Eulate: “Neure ama-hizkuntza delako atera dut gidabaimena euskaraz”

Iaz gidabaimena euskaraz atera zutenen artean da Malen Lanz Garcia de Eulate. Italiara joan aurretik jakinarazi diote, 400 euroko saria egokitu zaiola.

NOAUA! Zerk bultzatu zintuen gidabaimena ateratzera?

Malen Lanz Garcia de Eulate: Gehienbat autonomiagatik, gurasoen mende ez egoteko. Lagunekin edonora joan ahal izateko erosotasun horregatik. Bestalde, tituluak izateko gaur egungo presio horregatik ere bai.

Ondo pentsatu beharreko erabakia, ez baita merkea.

Merezi duen inbertsio bat dela esan dezakegu, bizi osorako baita. Egia da, gidabaimenaren atzetik dator ibilgailua izatea, aseguruak, gasolina... Azkenean lehen kontziente ez nintzen errealitateaz jabetzen zara.

Lan munduratzea erraztea izango da beste abantailak bat.

Gehigarri handi bat da kurrikulumerako, eskertzen dute behintzat. Kurrikulumeraren zati



Malen Lanz Garcia de Eulatek 400 euroko saria eskuratu du.

MALEN LANZ GARCIA DE EULATE

“Pixkanaka aurrerapausoak ematen joan beharko dugu. Garrantzitsua da jendeak gidabaimena euskaraz ateratzera animatzea”

garrantzitsuetako bat da.

Gidabaimena argi dago zergatik atera nahi zenuen. Baina zergatik euskaraz?

Batez ere neure ama-hizkuntza

euskara delako. Egia da gidabaimena euskaraz ateratzea ere arrotza egiten dela pixka bat. Gaztelaniako hiztegiari ohituak gaude. Erdarazko hitz asko ditugu barneratuak eta gero euskaraz ikastea arraroa egiten da. Barneratzea pixka bat gehiago kostatzen da hasieran; esaldiz esaldi joan beharra, baina neurria hartzen diozu. Azkenean dena bezala, ohitzea da.

Zati teorikoa euskaraz ikastera ohitu ostean, gero zati praktikoa erdarara itzuli behar.

Niretzat behintzat aldaketa oso handia izan zen. Koronabirusa-

ren kontuarekin zati praktikoa egiteko zerrenda oso luzea da eta hilabete batzuk igarotzen dira. Autoeskolakoak esaten zidan, gazteleraz hasiko gara ze aztertzaileak kanpokoak dira. Aldaketa handia da baina zati teorikoarekin bezala, kontua ohitzea da.

Zati hori euskalduntzeko zer falta da?

Euskaraz dakiten aztertzaileak. Horrek asko egiten du. Aztertzaile erdaldunak segurtasun falta hori eman zidan. Eta ez banion ulertzen zer esan nahi zuen edo nahastu izan banintz? Halere oso gustura egon naiz.

Aztertzaile euskaldunak izaten laguntzeko, teorikoa behintzat euskararen aldeko hautua egiten jarraitzea beharrezkoa izango da, ezta?

Gaztelerazko hitzak barneratuak ditugu. Jendeak gehiago gazteleraz ikastera jotzen du, baina pixkanaka ari garela uste dut. Pixkanaka aurrerapausoak ematen joan beharko dugu. Garrantzitsua da jendeak gidabaimena euskaraz ateratzera animatzea.

“Nire inguruko gehienek gazteleraz atera dute”

NOAUA! Zure inguruan zure hautu bera egin duten pertsonak badituzu?

Malen Lanz Garcia de Eulate: Gehienek gazteleraz atera dute.

Zuk aipatu dituzun argudioengatik.

Barneratzea falta da. Entzuten da euskaraz “ze perezaz”, baina “konfort” eremutik pixka bat atera beharko genuke. Erraza da esatea bai-

na batzuetan zailago ikusten dugun horri heltzen badiogu, pixkanaka geroz eta zailagoa iruditzen zitzaigun hori errazago egin ahalko dugu.

Gidabaimena euskaraz ateratzeko ere pizgarri bat badu; 400 euroko saria irabazteko aukera.

Asko eskertzen da.

Orain ordea Italiara zoaz eta gidabaimenaren beharrik izan-

go al duzu?

Han mugitzeko batez ere trenak baliatuko ditugu. Esan digutenez, Italian zebraidean edo zuk jartzen duzu hanka edo ez zara pasatzen. Baina beti eskertzen da gidabaimena badaezpada, larrialdiren bat suertatuko balitz.

Erasmus programarekin Florentzian hiru hilabeteko egonaldia egingo duzu. Gatozen egoeratik pozik, orain aukera

hau izanda?

Oso gustura. Bi urte muga pila batekin eta bapatean atea ireki dira parez pare. Neurriak errespetatuta, baina bi aldiz pentsatu gabe banoa. Ikasturtea hasi nuenean ez zegoen nire asmoen baitan. Baina bizitza konturazterako pasa egiten dela diote. Aprobetxatzeko aukera handi bat nuen aurrean eta eutsi diezaioke denez, aukera honi heldu eta banoa.

“Gidabaimena ateratzeko orduan, euskararen aldeko hautua sustatzen segiko dugu”

Hamabi urte daramate Buruntzaldeko udalek eta autoeskolek gidabaimena ere euskaraz ateratzeko gonbida luzatu eta sektorea euskalduntzeko lanetan. Konpromiso honi eutsi eta egitasmo hau indartzeko hainbat erronka bete asmoz agertu ziren joan den astean Andoainen hedabideen aurrera, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udal ordezkariak, baita elkarlan honetan diharduten autoeskoletako kideak ere. Iaz gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egin zuten eskualdeko herritarren artean 400 euroko 9 sari zozketatu zituzten.

Egitasmo honen balantzea marrazten lagundu dezakeen datu bat; 12 urteotan 1.192 herritarrek prestatu eta gainditu dute gidabaimena euskaraz eskualde honetan. Goranzko joera izan zuen lehen urteetan, “2014an jo zuen goia, jaitsiera izan zen gero eta 2019an kopuru on samarra izan arren, azken bi urteotan jaitsiera egon da”, bizi izan dugun osasun krisialdiak baldintzatu. “Espero dezagun berriz ere kopuru handiagoetara heltzeko moduan izatea hurrengo urteetan”.

Hortxe aurrera begirako



Iaz gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egin zuten herritarren artean 400 euroko 9 sari zozketatu zituzten Buruntzaldeko Udalek.

BURUNTZALDEKO UDALAK

“Gazteak dira zozketa honetan saritzen ditugunak”

erronketako bat; “kualitatiboki handitzea gustatuko litzaikekeen kopurua” dela adierazi zuten. Modu horretan, egitasmo honi segida emateko konpromisoa adierazi zuten, ekarpen baliagarritzat jotzen baitute. “Gazteak dira zozketa honetan saritzen ditugunak, D ereduan egiten duten ibilbideari aitorpena eginez”. 18 urteak beteta bizitzeko etapa berri batera igarotzeko mugarrira izaten den gidabaimena euskaraz ate-

ratzeko aukera ematea garrantzitsutzat jotzen dute.

Udalez gairako erakundeei deia

Ekarpen hau gauzatzeko, alor hau euskalduntzeko ikasleen eta autoeskolen ahalegina eskertu dute Buruntzaldeko udalek. Baina ez da aski gaurkoz, atal praktikoa ere hizkuntza berean atera ahal izatea bermatua egoteko. “Ez da aurreapausorik eman. Urratsak emateko garaia izan daitekeela uste dugu, aztertzailak euskaldunak izan eta eredu horretan bide bat egiteko”. Bide horretan, “udalez gairako erakunde batzuk indarra egin behar lukete”. Bai atal praktikoa eus-

kalduntzeko, baita kalitatezko azterketa ereduak garatu, materiala hobetu eta digitalizazioan ere beste urrats batzuk emateko. “Gidabaimena digitalki ateratzeko aukera handitzea ere beharrezkoa ikusten dugu”.

Sektorea euskalduntzeko bidea ez da erraza izaten ari. Baina “zailtasunak zailtasun aurrerapausoak emateko, terminologia bateratua sortu eta euskararen erabilera sendotzen jarraitzeko asmo irmoa dugu eta argi dugu Buruntzaldeko herritarrek gidabaimena ateratzeko orduan euskararen aldeko hautua egitera bideratzeko lanean segiko dugula”.

Egitasmoaren edizio berriari maiatzean ekingo diote. Gai honi buruzko informazioa eta gidabaimena euskaraz ateratzeko gonbida luzatzeko informazioa helaraziko diete aurtun 18 urte beteko dituzten eskualdeko herritarrei.

Egitasmoaren sustatzaileak

■ Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalak.

■ Buruntzaldeko 9 autoeskoletak: Andoaingo Bengoetxea eta Mendi, Astigarragako Otamendi, Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi, Lasarte-Oriako Mugica, eta Urnieta zein Usurbilgo Solozabal.

Euskal Herriko Mus Txapelketako sailkatze saioa

Hamahirugarren edizioa martxan da, herriz herriko kanporaketa saioekin. Usurbilgoa martxoaren 12an jokatu da, arratsaldeko 16:30ean Aitzaga elkartearen.

Izen ematea ordu erdi lehenago zabalduko da,

16:00etan. Aginaga eta Saizar sagardotegiek eta Bruño marisko etxekoek lagunduko dute hitzordua.

Bestalde, jokatzeko da oraindik 2020ko edizioko final handia. Osasun krisialdiak bitan atzerarazi duen

hitzordua apirilaren 2rako iragarri dute Leitzañ. Euskal Herri osoko 128 bikote lehiatuko dira, tartean bi bikote usurbildar.

Informazio gehiagorako: ehmus.eus



Martxoaren 12an, Aitzagan.

Martxoko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Bi urte beteko dira pandemia hasi zenetik eta nola aldatu zaizun bizitza orduz geroztik. Hileko aholkua: Musukoa dagokion tokian erabiltzea ondo dago, baina zure aurpegia nolakoa den ia ahaztu zaigu!

**CANCER**

Penaz zaude Metallica ikustera ezingo duzulako joan Bilbora. Hileko aholkua: Ez kezkatu; Agiñako eliza zaharrea kontzertu gau mundialak antolatu dituzte!

**LIBRA**

Ez denborarik galdu printze/printzesa urdinaren zain. Hileko aholkua: Geratu zaitzez ohean zaudetela argia itzaltzera altxatzen den horrekin. Hori da benetako maitasuna!

**CAPRICORNIUS**

Udaberriak on egingo dizu: egunak luzatzen hasten dira, eguzkiak gozatzeko aukera gehiago dago eta batez ere odola aztoratuko dizulako. Hileko aholkua: Baina disimulatu pixka bat, mesedez!

**TAURUS**

Badakigu usurbildarrek sagardoa alkate dugula baina... Hileko aholkua: Martxa honetan sagardotegian ohea jarriko dizute kupelaren ondoan.

**LEO**

Dagoeneko urtarrilean hasitako zure kiroldegiko plangintza pikutara joan da. Hileko aholkua: Ez kezkatu. Genetikak eman dizuna ez dezala kirolak aldatu!

**SCORPIUS**

Aitaren eguna hurbiltzen ari da eta urtero bezala, ez dakizu zer oparitu. Hileko aholkua: Lasai egon, edozein detailerekin poztuko da eta. Baina badaezpada ez oparitu buztinezko hautontzirik.

**AQUARIUS**

Azken hilabeteetan hara eta hona zabilta, lanpetuta eta urduri. Lasaitasunerako tartea hartu behar duzu. Hileko aholkua: Zure kasuan, konfort gunetik ez ateratzea komeni zaizu. Geratu hor goxo-goxo.

**GEMINI**


Esaera zaharrak dio martxoan zelai guztiak loratzen direla, eta zuri ere horixe gertatuko zaizu. Hileko aholkua: Baina kontuz hartzen duzun bidearekin. Zer nahiago duzu izan, hortentsia edo babalorea?

**VIRGO**

Martxoaren 8ko aldarrikapean parte hartzeko gogoz zaude, baina ez ahaztu eguneroko errebindikazioa dela. Hileko aholkua: Egun horretan morez janzea ez da nahikoa.

**SAGITARIUS**

Umore gehiagoz bizitzen ikasi behar duzu, tristurak jango zaitu bestela. Hileko aholkua: Algara irribarrearen orgasmoa da, badakizu? Praktikatu gehiago!

**PISCIS**

Aurten urteak normaltasun baten barruan ospatzeko aukera izango duzu eta aprobetxatu egin beharko zenuke. Hileko aholkua: Noiztik ez duzu txokolatada bat egiten?

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, mas-

kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Pertsona heldu bat zaintzeko zaintzale euskalduna behar

dugu. Arratsaldeetan aritzeko. 616 27 37 85.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaeratarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta

barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeko garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. 688715958

Emakume arduratsua orduka

edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Interna moduan edo orduka pertsonen zaintzan lan egingo lukeen neska bat naiz. Mugitzeko aukera dut. 643154392

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelailan. Aurkitu baduzu deitu 685725681

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Laia!**

Bizkotxo prest? Zazpi muxu potolo zuretzat!

**Zorionak Inhar!**

Ondo pasa zure 4. urtebetetzean!! Muxu bat familiakoekin partez.

**Zorionak Jon eta Iera!**

Martxoaren 7an eta 11n zuen urtebetetzeak izango dira. Ondo ondo pasa eta ospatu zuen egunak. Muxuak biontzat, denon partez.

**Zorionak Luken Pierre!**

Martxoaren 6an 5 urte beteko dituzu. Muxu handi bat Victor, Irai, aita, ama eta amonaren partez!!

Eskubaloitardak Oiardon**Martxoak 5, larunbata**

■ 17:00 Jubenil mailako
Euskal Liga, azken jardunaldia:
-Usurbil K.E
-Pulpo Eskubaloia

Binakako Master Laboral Kutxa txapelketa**Martxoak 6 igandea, Legazpin**

Leire Garai-Miriam Arrillaga
Maddi Barrokal-N.Mendizabal

Heriotzak**Antonia Seijas Uña**

Otsailaren 25ean
hil zen,
90 urterekin

**Futbol partidak Haranen****Martxoak 5, larunbata**

■ 10:00 Infantil mutilak:
-Udarregi Usurbil FT A
-Zarautz KE A
■ 11:30 Kadete mutilak:
Usurbil FT B-Mundaiz SCD
■ 15:30 Erregionalak:
Usurbil FT-Beti Ona CD
■ 17:45 Preferente mutilak:
Usurbil FT-Dunboa Eguzki CD

Martxoak 6, igandea

■ 10:00 Kadete neskek:
-Usurbil FT
-Santo Tomas Lizeoa KE
■ 12:00 Alebinak, 2. urtea (2010):
-Usurbil FT
-Urnieta KE
■ 12:00 Benjaminak,
1. urtekoak (2013):
-Usurbil FT
-Añorga KKE

Goardiako farmaziak

Osteguna 03 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 05 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astlehena 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 08 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda

martxoa

04 ostirala

05 larunbata

06 igandea

Igande honetan Sutegin, 'Nur eta herensugearen tenplua'

Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkartek antolatutako euskarazko zine zikloaren hurrengo proiektzioa igande honetan izango da, martxoak 6, arratsaldeko 17:00etan Sutegin. "Nur eta herensugearen tenplua" eskainiko dute. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforma bidez eskuratu ahalko dituzue.

Sinopsia: "Nur gurasoekin Txinara bizi zera doa. Lagun berriak ezagutzen dituzten bertan eta haietako baten, Guo Guoren urtebetetzea ospatzeko eguna da gaur. Jolas-parke erraldoi batean jarri dute biltzeko hitzordua. Jolasten ari diren ar-



'Nur eta Herensugearen Tenplua' filma, igandean arratsaldeko 17:00etan Sutegin.

tean, omendua desagertu dela jabetuko dira. Lagunaren bilaketak labirinto batean sartzea eramango ditu. Bertatik irteteko bidean aurkitzen dituzten enigmak argitu beharko dituzte".

Usurbilen kokaturiko kontakizuna aurkeztuko du Uxue Alberdik

"Ibaia: Uxue Alberdik Usurbilgo hirigintza fabulatzen du" kontakizuna ahotan hartuko duen solasaldia antolatu dute Usurbilgo Udaleko Berdintasun Sailak eta Sutegi udal liburutegiak martxoaren 9rako

19:00etan Sutegin. Kontakizun honen liburuxkak liburutegian bertan eskuratu ditzakezuela ohartarazi dute kultur etxetik. Hitzordurako izen-ematea usurbilkultura.eus plataforman bidera daiteke.

Datozenak

"Ez gara kolonialistak baina..." hitzaldia, Elkanori Bira herri ekimenaren eskutik

Elkanoren Mundu Biraren V. mendurrenean, "Juan Sebastian Elkano euskaldunon nazioarteko ikur bilakatu nahi dute bulkada eta diru publikoarekin; duela 500 urte bezala, orain ere, Mendebaldeko gizon zurien 'balentriak' goraiatuz". Elkanori Bira ekimeneko kideek ordea, "begirada eta diskurtso eurozentrari" buelta eman nahi diote.

Martxoak 10 osteguna

■ 19:00etatik aurrera Sutegin. Sarrera: doan.

■ Hizlaria: Axier Lopez, Elkanori Bira ekimeneko kidea.

■ Antolatzailea: Nafartarrak.



Nafartarrak taldeak antolatu duen hitzaldia Sutegin egingo da.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

OSASUN GIDA 2022



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parea doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2 lente parea doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 22/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik



INAUTERIAK

JANTZIEN ERAKUSKETA

Otsailaren 20tik martxoaren 6ra

Zatoz Eureka Dance-k Aisialdi eta Jatetxeetako goiko solairuan prestatu duen jantzi-erakusketara. Ideiak hartu inauteri hauetan arrakasta izan dezazun. Kontsultatu informazio guztia Urbil.es-en.